



ZIURTAGIRIA

Nik, Inmaculada Echeandia Viñuela andreak, Zaldibar Elizateko Udaleko idazkari-kontu hartzaileak,

Honako hau ZIURTATZEN DUT: Udal honetako Tokiko Gobernu Batzarrak, 2020ko irailaren 8ko egindako ohiko bilkuran, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuela:

*163.- UDAL LAGUNTZEN PENTZUTAN 2020AN LAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK ETA LAGUNTZA HORIETARAKO DEIALDIA ONARTZEA. GOBERNU BATZARRAK ONDO IRIZTEN BADIO

Oinarria: udal laguntzen pentzutan 2020an laguntzak emateko egin diren oinarriak eta deialdia ikusi dituzte. Aldaketa batzuk egin zaizkie iazkoei.

Oinarria: 2020ko uztailaren 14ko Gizarte Ongizate, Osasun eta Migrazio arloko informazio-batzordearen irizpena. Proposamena: udal laguntzen pentzutan 2020an laguntzak emateko oinarriak organo aginpidedunak onartzea.

Jarraian, Gizarte Ongizate, Osasun eta Migrazio informazio-batzordearen proposamena bozkatu dute, eta gobernu batzarreko kideek aho batez erabaki dute honako hau:

Lehena.- Udal laguntzen pentzutan 2020an laguntzak emateko osatu diren oinarriak eta deialdia daudenetan onartzea.

Bigarrena.- Lehen semea edo alaba izan zein adopzioan hartzen dutenentzako laguntzak emateko 2020ko deialdia onartzea, aipatutako oinarrietan xedatutakoarekin bat etorritz.

Hirugarrena.- Oinarriak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta udaletxeko iragarki-oholean argitaratzea. Deialdia, berriz, Espainiako Diru-laguntzen Datu-basean eta udaletxeko iragarki-oholean."

Horrela jasotzeko eta dagokion espedientean gordetzeko, ziurtagiri hau egin dut Alkatearen aginduz eta haren oniritzia dudala, Zaldibarren, bi mila eta hogeiko irailaren zortzian.

OE
ALKATEAK



IDAZKARIAK